BARAKALDO UDALERRIAN, BBUPren JABETZAKO KONTAGAILUEN PARKEAREN HORNIDURA, ESKU-HARTZEA, AZTERKETA ETA ERAGIKETA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3329

Kontratua erregulazio harmonizatuari loturik dago:	☒BAI ☐EZ
Espedientearen izapidea	☒Ohikoa, ☐Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Joaquin Soler
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratuaren xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Bezeroekiko Harremanetarako eta Kalitatea Kudeatzeko Zuzendaritzaren eskumen-eremuaren barruan hornidura jasotzen duten erabiltzaileen higiezin pribatuetan dauden neurketa-ekipoen eta zerbitzu berrien horniduren multzoa ematea, bai gailu berriei dagokienez, bai lehendik daudenei dagokienez, Barakaldoko udal-mugartean.

2.- Bete beharreko premiak: ICT/155/2020 Ministro Aginduak 12 urteko gehieneko balio-bizitza ezartzen die ur-kontagailuei. Epe hori luzatzea erabaki ez bada, betiere estatistikoki egiaztatu bada kontagailu jakin batzuek eskatutako baldintza metrologikoak betetzen jarraitzen dutela, adierazitako epea bete eta gero, ekipo berriak instalatuz aldatu behar dira.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Jarduera bakoitzeko lote desberdinak sortuz gero (instalazioaren hornidura bereizia), Partzuergoak gaur egun kudeatzeko modua ez daukan zailtasun garrantzitsua gertatuko litzateke, hala nola biltegiratze-instalazioak jartzea, biltegiko sarrera-irteerak kontrolatzea, kontagailuak behar bezala ez instalatzearen ziozko erroreak (batez ere, komunikazio-modulua erabiltzeko prestakuntza edo trebetasun faltagatik eta horri lotutako datuak bere funtzionamendurako), egindako hornidurarekin edo instalazio desegokiarekin erraz identifikatu ezin direnak, eta abar.

4.- CPV: 38421100-3 Ur-kontagailuak

B.- KONTRATUAREN XEDEA
5.- Aldagaiak edo hautabideak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	**ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA, BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO (790.944,00 €), BEZ GABE.**
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: **790.944,00 euro** Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 92501 – 22799. - 2026. urtea: 32.956 euro gehi BEZa. - 2027. urtea: 757.988 euro, gehi BEZa.	
5.- Prezioak berrikustea: ☐BAI ☒EZ	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐BAI ☒EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtapenaren bidez.	
8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupena guztira: URTE BAT (1)
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Berme-epea: Kontratuaren iraunaldia
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Barakaldo udalerria.
6.- Lanak partzialki jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokiona, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (**790.944,00 €).**

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
- Ur-hornidurako zerbitzuaren ardura duen administrazioak emandako ziurtagiria, Lora komunikazio-sare finkoaren bidezko urruneko irakurketa-zerbitzua ezarrita dagoen bezero-kopurua, zerbitzu horren antzinatasuna eta funtzionamendu egokia berariaz adierazita. Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, Europar Batasuneko ur-operadoreetan izandako esperientziari buruzko ziurtagiriak baino ez dira erabiliko. - Ur-hornidurako zerbitzuaren ardura duen administrazioak emandako ziurtagiria, azken hiru urteetan instalatzaile gisa egindako eskaintzan identifikatutako kontagailu-kopurua eta instalatu beharreko kontagailu-kopuru osoaren egikaritze-maila berariaz adierazita. Europar Batasunaren eremuan ur-operadoreetan izandako esperientziari buruzko ziurtagiriek baino ez dute balio kaudimen teknikoa egiaztatzeko, eta eskaintzan instalatzaile gisa identifikatutakoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat zuzenean edo zeharka lanean aritu bada, Partzuergoak berak emandako ziurtagiria ere erantsi beharko da. - B+D edo H1 moduluaren araberako fabrikazio-prozesuaren ebaluazioa egiaztatzen duen ziurtagiria. - Kontagailuaren fabrikatzailearen ziurtagiria, eskaintza osatzen duen urruneko irakurketa-modulua (berariaz adierazi erreferentzia) hornitzen den kontagailura egokitzen dela eta bere prozeduren eta eskakizun teknikoen arabera muntatu, instalatu eta konfiguratzen dela egiaztatzen duena, kontagailuan eta banako igorgailuaren artean biltegiratutako, kudeatutako eta transmititutako informazioaren erabateko parekotasuna eta identitatea bermatzeko. - Partzuergoaren irakurketa-softwarearekin eta PDArekin konektatzeko eskainitako tresnek (berariaz adierazi antenen erreferentzia edo antzekoak), walk-by edo drive-by irakurketan erabiliko direnek, kontagailuan instalatutako moduluaren irakurketa behar bezala egiten dutela egiaztatzen duen ziurtagiria (gutxienez, 24 hilabeteko antzinatasunaz eskainitako urruneko irakurketa-modulua erabiltzen duen uraren ziklo integraleko operadore batek emandakoa). Eskaintza osatzen duten kontagailuen fabrikatzaileak berak aurkeztutako eskaintzak bakarrik onartuko dira, edo, bestela, kontagailuen instalatzaileak edo banatzaileak aurkeztutakoak, horrela aitortuta eta fabrikatzaileak BBUPri zuzendutako idazki baten bidez aurkeztuta. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aurrean ordezkaria identifikatu beharko da beti. Kaudimen teknikoko baldintza gisa ezartzen da ur-hornidurako zerbitzu batean eskaintzen den Lora komunikazio-sare finkoko urruneko irakurketa-sistemak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea, gutxienez 10.000 bezerorentzat eta zerbitzua hasi zenetik gutxienez bi urteko antzinatasunaz.

Kaudimen teknikoari dagokionez, azken hiru urteetako batean, instalatzaile gisa identifikatutakoak 10.000 kontagailu muntatu dituela egiaztatu behar da (horietatik 4.000, gutxienez, ez dira baterian egon behar), eta, aldi berean, instalatu behar izan diren kontagailu guztien % 80, gutxienez, egikaritu direla.

Eskaintza instalatzaileak edo banatzaileak egiten badu, eskaintza egiten den kontagailu guzti-guztiei (marka eta modeloa) dagokienez egiaztatu beharko da sistemak behar bezala funtzionatzen duela.

ENPRESA SAILKAPENA
ENPRESA SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.
2.- 2. gutun-azala: balio-judizioei loturiko irizpideen dokumentazioa.
3.- 3. gutun-azala: automatikoki kuantifikatzekoak diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO JUDIZIOEI LOTURIKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Irizpide teknikoak baloratzeko beharrezkoa dena. Agiri horiek bereiz aurkeztu beharko dira, balorazioa egin ahal izateko.

Irizpide teknikoak baloratzeko dokumentazioa bereizita identifikatu beharko da, eta ezingo da hogei orrialde baino gehiagokoa izan, beharrezkotzat jotzen diren produktuaren katalogo guztiak barne.

Aipatutako lehenengo hogei orrialdeen ondorengo orrialdeen edukia ez da kontuan hartuko eskaintzaren balorazioan.

Agiri horien artean, lizitatzaileak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, eskainitako konponbideak Partzuergoarentzat inolako kosturik gabe BBUPrekin eta urruneko irakurketa zerbitzuarekin informazioa trukatzeko aukera ematen duela egiaztatzen duena, baldintza teknikoen agirian ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera. Zehazki, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Urruneko irakurketa-moduluen datuak behar bezala desenkriptatzeko eta interpretatzeko beharrezkoa den informazioa bidaltzeko konpromisoa, bai eta kontagailu eta komunikazio-sistema bakoitzeko bakarrak izango diren *key* edo gakoak ematekoa ere; BBUPri aukera emango dio informazio hori erabiltzeko, bai bere aldetik, bai hirugarrenen aldetik, walk/Dive by eta sare finkoko datuak irakurri, desenkriptatu eta interpretatzeko.

b) BBUPk Barakaldon erabiltzen duen Lora komunikazio-sare finkoarekin Lora urruneko irakurketa-sistema bateragarri egiteko gastu guztiak bere kontura izango direla.

c) Kontratua esleitzen denetik hilabeteko epean, ondokoak bermatzen dituela:

- Partzuergoaren eta esleipendunaren arteko datuak trukatzeko sistema erabat operatibo eta integratuta egongo dela (BBUPk egin nahi duen lan-agindua jaso eta interpretatzea, komunikazioen modulua instalatuta izan ala ez, kontagailuen, lotutako igorgailuen eta giltzen erreferentzia eta balio banakatuak, lanen/muntaketen gauzatze-egoerari buruzko informazioa, horiek baztertzeko arrazoia eta abar).

- Gaur egun Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak walk-by eta/edo drive-by irakurtzeko erabiltzen duen hardwareak eta softwareak behar bezala irakurriko dituela instalatuta dauden ekipoei (kontagailua eta urruneko irakurketa-modulua) aldi berean eskainitako urruneko irakurketa-moduluak, walk-by edo drive-by irakurtzean.

- Walk-by edo Drive-by irakurketa egiteko eskaintzen den irtenbidea BBUPri hardware eta software berria dohainik hornitzea bada, urruneko-irakurketa moduluak (hornitu beharrekoak nahiz lotea osatzen duten udalerrietan instalatutakoak) aldi berean irakurri ahal izateko, gaur egun instalatuta dauden irrati-igorgailuen fabrikatzaileak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, hornitu beharreko softwareak eta hardwareak urruneko irakurketa-modulu horiekin behar bezala elkarreragiten dutela egiaztatzeko.

- Hornitu beharreko kontagailuek eta urruneko irakurketa-moduluek lehendik sortutako urruneko irakurketa-sare finkoetan instalatutakoekin batera funtzionatuko dutela, sare gehigarririk sortu beharrik gabe. Itelazpik (BBUPk erabiltzen duen Lora komunikazio-sarearen hornitzaileak) hilabeteko epean egiaztatu beharko du alderdi hori betetzen dela, bai eskaintza egiten duen komunikazio-moduluak behar bezala komunikatzeari dagokionez, bai emandako jarraibideek eta desenkriptazio-gakoek informazioa behar bezala interpretatzea ahalbidetzeari dagokionez.

d) Doan emango dituela lizentzien, liburutegien, enkriptatzeko/desenkriptatzeko gakoen eta fitxategien egokitzapenak eta eguneratzeak, emandako urruneko irakurketa-moduluen balio-bizitza osoan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak modulu horien irakurketa eta gainerako informazioa hartu ahal izan dezan, eta interpretatzeko gai izan dadin, gaur egun dituen edo lizitazio honetan ematen zaizkion tresnak erabiliz (softwarea eta hardwarea).

Eskaintzailearen kontura izango dira egin beharreko garapenei lotutako kostu guztiak eta kontratuaren eta egindako eskaintzaren baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko egin beharreko funtzionamendu-probak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK:

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz-mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa honela osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Prezio horiek aplikatuz eskaintza egin behar duten unitate edo aleko prezioen zerrenda, kalkulatutako unitateen gainean, kontratua zatitzen den lote bakoitzeko taula hauen arabera:

Itema	Unitateak	Gehieneko prezioa	Gehieneko zenbatekoa
13/15 mm-ko kontagailuen horn.	10.808	30	324.240,00
Urruneko moduluen horn.	4.536	50	226.800,00
OT BAT	6.272	18	112.896,00
OT EZ BAT	4.536	28	127.008,00
			790.944,00

Honela definituko da lizitatzaile bakoitzak eskainitako prezioa, beraren eskaintza ekonomikoa baloratzeko oinarritzat hartuko baita: eskainitako unitateko prezioak (taulan, gehieneko P gisa ezarritakoaren berdinak edo txikiagoak) bider «zenbatetsitako unitateak» deritzon zutabean kalkulatu den unitate-kopurua eginda, eta, ondorioz, «lizitazioaren gehieneko tasa» 790.944,00 eurokoa (gehi BEZa) ezarrita.

Hornikuntzari edo kontagailuaren instalazioari loturiko gorabehera-abisutik datozen lan-aginduak esleipendunak hartu beharko ditu bere gain, horniduren eta zerbitzuen bermearen kontzeptuaren barruan.

Hornitu beharreko kontagailuen edo urruneko irakurketa-moduluen unitate-kopurua eta egikaritu beharreko lan-aginduen kopurua gutxi gorabeherakoak dira, eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko erabiliko da. Kontratua esleitu eta zerbitzua ematen hasi ondoren, esleipendunak ezin izango dio inolako erreklamaziorik egin BBUPri, hornidura-agindu edo lan-agindu gehiago edo gutxiago esleitu zaizkiolako. Nolanahi ere, eskainitako unitate-prezioetan gauzatu beharko ditu agindu horiek, betiere SPKLn ezarritako mugen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, eskaintza ekonomikoa zehazteko balio duten itemen unitateek ez dute izaera mugatzailerik.

Era berean, lizitatzaileak eskain ditzakeen gehieneko prezioak kontratuaren prezioa zehazteko erabiltzen diren item bakoitzaren unitateko prezioek ere osatzen dituzte.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (Administrazio-baldintza berezien agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentea:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere, 50 puntu atera daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

(Ob / Ol) x z
Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena
Ol = baloratzeko dagoen lizitatzailearen eskaera
z = irizpide honi aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1. Kontagailuen ezaugarri teknikoak eta metrologikoak: ……30 puntu

   - Kontagailuen dimentsioak lehendik dagoen parkera zenbateraino egokitzen diren, ekipoen bolumen txikiagoa, luzera-aniztasunaren kokapena eta hari-diametroen kokapena balioetsiz (7/8-3/4 eta 3/4-3/4).
   - Zehaztasun metrologikoa
   - Kontagailua osatzen duen materiala (hobe letoia konpositea baino)
   - Behar izanez gero, esleipendunak eman ditzakeen ordezko kontagailuen aldaerak.
   - Urruneko irakurketa-modulua muntatzeko eta aurkibidea eta kontagailuaren nahiz moduluaren erreferentziak bistaratzeko erraztasuna.
   - Merkatuan ezarrita daramatzan maila eta denbora
   - Urruneko irakurketa-sistemen ezaugarriak (Lora/walk-by/drive-by sare finkoa eta abar):
     - Hainbat modutan irakurtzeko gaitasuna (walk by, Drive by eta Lora sare finkoan) aldi berean edo, bestela, haien artean txandakatzeko eta aldatzeko erraztasuna.
     - Integratzeko erraztasuna eta bermea, eta gaur egun BBUPk erabiltzen duen tresnaren (hardwarea eta softwarea) eta komunikazio-sarearen bidez irakurtzeko aukera, kostu gehigarririk izan gabe.
     - Eskainitako komunikazio-moduluak 2020tik aurrerako kontagailu bat instalatu den kontagailu-parkeko kontsumo-puntuak digitalizatzeko aukeraren erraztasuna.
     - Urruneko moduluaren balio-bizitza.

2. Hornikuntza eta, batez ere, instalazioa egiteko eskuragarri dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideak……..15 puntu

   - Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoak eta antolakuntzakoak
   - Prozesu jakin batzuk enpresa espezializatuetan kanporatzea eta baliabideak BBUPri eragin gabe jarduera-gailur eta jarduera-haranetan berrantolatzeko gaitasuna.
   - Lantaldearen antolaketa.
   - Behin-behineko bajen edo aldi baterako ezintasunen aurrean, edo jarduera-maila handitzeko premien aurrean, taldeak edo errefortzuak eta horien prestakuntza-maila.

3. Lanen plangintza eta metodologia:……5 puntu

   - Hornitzeko/instalatzeko/kentzeko proposatutako metodologia.
   - Kalitatea eta bermeak kontrolatzeko sistema, bai kontagailuaren fabrikazioan, bai instalazioan.
   - Horniketa eta instalazio lanei ahalik eta denbora laburrenean ekiteko gaitasuna.
   - Neurketa-ekipoen fabrikatzailearentzako irisgarritasuna, ezaugarri teknikoei dagokienez berritzaileak diren arazoak eta/edo zalantzak eta gaiak konpontzeko.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko helburuz, gizarte-irizpideak hurrenkera honetan aplikatuko dira, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiena. Berdinketa egonez gero, desgaitasuna duten plantillako langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.

b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.

c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.
3.- Ohi baino merkeagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak: Eskaintza bat ohi baino merkeagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean: - Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean. - Bi lizitatzaile izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean. - Hiru lizitatzaile izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak diren eskaintzak. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, soil-soilik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-hurrenkerari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da % 25etik gorako beherapena. - Lau lizitatzaile edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak diren eskaintzak. Dena den, horien artean batez bestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batez bestekoa kalkulatuko da kasu horretan ez dauden eskaintzak erabiliz. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-hurrenkerari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatuko da. Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, aintzat hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.
4.- Lizitatzaileak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea. **ESKAINTZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK** EBren eremuan ur-horniduraren zerbitzuaz arduratzen den administrazio publikoak eskatutako kaudimen teknikoa ez egiaztatzea, edo kaudimen teknikoan ezarritako ziurtagiriak ez egiaztatzea. Urruneko irakurketa-zerbitzua BBUPrentzat inolako kosturik gabe martxan jartzeari buruzko dokumentazio teknikoaren atal egokian aipatzen den ziurtagiria edo ziurtagiriak ez aurkeztea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK
Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitakoak.
M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK
Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak. <u>Neurketa-ekipoen hornidurari dagokionez:</u> Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du Partzuergoak jakinarazitako hornidura-aginduei kasu egiteko aukera une oro bermatuko duen kontagailu-izakinak izateko, bai igorgailuz hornituak, bai horiek gabe. Aurrekoa ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, eta zehapen hauek aplikatuko dira:

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. 1.500 euroko zehapena, behar adinako izakinik ez dagoen egun bakoitzeko (kontagailuak zein igorgailuak izan) edo lehen arau-haustea egiteko behar diren gailuak entregatzeko epeak atzeratzen diren egun bakoitzeko, gehienez ere, 10.000 euroraino.

2. 3.000 euroko zehapena, behar adinako izakinik ez dagoen egun bakoitzeko (kontagailuak zein igorgailuak izan) edo bigarren arau-haustea egiteko behar diren gailuak entregatzeko epeak atzeratzen diren egun bakoitzeko (25.000 euro, gehienez ere).

3. Ez-betetzeagatiko azkentze-proposamena, ondoz ondoko arau-hausteak gertatuz gero.

Zehapenak Bezeroekiko Harremanetarako Zerbitzuak proposatuko ditu, eta arau-haustearen ondorengo ziurtapenetik deskontatuko dira, geroago itzultzeko aukerarik egon gabe.

Arau horiek igorgailuen izakinetara hedatuko dira, baldin eta igorgailu horiek banaka hornitu behar badira, hasiera batean, ordeztu behar ez diren kontagailuetan instalatzeko; horien entrega-epea bi egunekoa izango da.

<u>Instalatzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketei dagokienez:</u>

Partzuergoak, gutxi gorabehera, sei hilabeteko epean bidaliko ditu egin beharreko lan-aginduak, esleipendunak bere jarduna planifikatu ahal izan dezan epe luzean eta, barnealdeko eta bateriako instalazioak konbinatzen diren eremu geografiko zabal samar baterako.

Adjudikaziodunak lan-agindu horiei erantzun beharko die, eta kontagailua gutxi gorabehera erritmo konstantean instalatu beharko du; beraz, hilero egindako instalazioen zioz ziurtatu beharreko lanak bidalitako lan-aginduen % 15 (ehuneko hamabost) izatea espero da gutxienik.

Adierazle hori betetzen ez bada, zehapen edo zigor hauek ezarriko dira:

- % 15eko adierazlea ez betetzeak fakturatu beharreko zenbatekoa murriztea dakar, aldi horretan ziurtatu beharko litzatekeen zenbateko teorikoaren % 10.

- Adierazlearen balioa % 12ra iristen ez denean, fakturatu beharreko zenbatekoa murriztu egingo da, aldi horretan ziurtatu beharko litzatekeen zenbateko teorikoaren % 20.

- Adierazlearen balioa % 10era iristen ez denean, fakturatu beharreko zenbatekoa murriztu egingo da, aldi horretan ziurtatu beharko litzatekeen zenbateko teorikoaren % 30.

Zehapenaren xede izan ziren aldiei dagozkien egin gabeko lanen bolumena epez kanpo gauzatzeak ez du ekarriko sasoia zenean aplikatu ziren minorazioak berrikustea, zehapena irmoa izango baita onartzen den unean bertan.

Sei hilabeteko epean egin behar diren lan-aginduei dagokienez, esleipendunak epe horretan erantzun beharko die agindu guztiei, eta espero da gutxienez agindu horien % 85 behar bezala gauzatuko direla eta, hortaz, kontagailuak instalatu egingo direla. Adierazle hori betetzen ez bada, zehapen edo zigor hauek ezarriko dira:

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK
- % 85eko adierazlea ez betetzeak sei hilabetean gauzatzeko esleitutako lanaren balioaren % 10eko zigorra ezartzea dakar. - Adierazlearen balioa % 70era iristen ez denean, sei hilabeteetan gauzatzeko esleitutako lanaren balioaren % 20 izango da zigorraren zenbatekoa. - Adierazlearen balioa % 60ra iristen ez denean, sei hilabeteetan gauzatzeko esleitutako lanaren balioaren % 30 izango da zigorraren zenbatekoa. - Adierazlearen balioa % 50era iristen ez denean, hura gauzatzeko esleitutako lanaren balioaren % 30eko zigorra ezartzeaz gain, Ur Partzuergoak kontratua azkendu ahal izango du, emandako betetze leialaren abala gauzatuta. «Esleitutako lanaren balioak» instalazio-eragiketaren prezioa nahiz kontagailuaren eta komunikazio-ekipoaren hornidurarena hartzen ditu (esleitutako eskaintzaren ondoriozko prezioetan baloratuta), beharrezkoa den kasuetan.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA
Lizitatzaileak arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA
Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA
☒Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA
Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA
☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK
Adjudikaziodunak, kontratua hasi behar den egunean eta kontratua gauzatzen den bitartean, lokal egoki bat izan beharko du, Barakaldotik 30 minutu baino denbora laburragora erabiltzeko modukoa, agindu diren prestazioak emateko behar diren elementu guztiak izango dituena, bereziki, honako hauei dagokienez: - BBUP kontagailuen izakinetan sarbidea izateko aukera ematea, horiek baliatuz, kontagailuen kalitate-kontrola arrazoizko denboran eta kostuetan egin ahal izateko. - BBUPk baliabide propioen bidez egiten dituen instalazioetan behar dituen kontagailuak kentzeko aukera ematea.

- Neurketa-ekipoak –kontagailuak, banako igorgailuak– eta eskaintzen den urrutiko irakurketa-sistema instalatzeko, mantentzeko eta konpontzeko beharrezkoak diren gainerako elementuak behar bezala biltegiratzeko, kontserbatzeko, konpontzeko, muntatzeko, konfiguratzeko eta jarduteko makinak, erremintak eta lanabesak edukitzea.

- Neurketa-ekipo berriak eta kendutakoak –kontagailuak eta irrati-igorgailuak– gordetzeko, kontserbatzeko, inbentariatzeko eta banako elementuak eta horiek sartzen direneko loteak identifikatzeko biltegi iraunkorrak izatea. Biltegi horietan, neurketa-ekipoen ordezko pieza zehatzak eduki behar dira, hala nola brida desmuntagarriak, errakoreak, zigiluak, junturak eta baldintza-agiri honi darizkion betebeharrak betetzeko lan-bitarteko egokiak.

Adjudikaziodunak bere sistemetan eta hornitzen dituen produktuetan ezarri beharko ditu EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak. Hala berean, Espainiako Estatuan eman diren indarreko xedapenei lotuko zaie, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Segurtasun Eskema Nazionalaren eta horrekin bat datozen gainerako arauei.

Bestetik, indarrean dagoen araudiak eta BBUPren politikak ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren arloan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Besteak beste, aldatutako kontagailuen kudeaketari buruzkoak.

Betebehar orokorrak

Kontratu hau gauzatzearen ondorioz sorten diten hondakin guztiak, eta bereziki zerbitzutik kendutako neurketa-ekipoak, aplikatu beharreko araudiaren arabera kudeatu beharko dira.

Adjudikaziodunak zainduko du ahalik eta hondakin gehienak kudeatzeko azken bidea balorizatzea izan dadin, ez hondakinak ezabatzea.

Adjudikaziodunaren eskumenekoa izango da hondakin horien azken kudeatzailea hautatzea, bai eta hondakinok garraiatzeko ardura duen garraiolaria hautatzea ere. Biek izan beharko dituzte indarrean dauden eta jarduten duten lurralde-eremu osoan eskatzeko modukoak diren baimenak. Adjudikaziodunak BBUPri jakinarazi beharko dio azkenean hautatzen dituen kudeatzaile eta garraiolarien nortasuna, eta BBUPri emango dizkio eskatzeko modukoak diren baimenak, kontrola ditzan.

Kontratistak hondakinen kudeaketan aplikatzekoak diren izapide elektronikoak egiteko beharrezkoak diren tresnak (hardwarea eta softwarea), ziurtagiri digitalak eta baimenak eduki beharko ditu jarduten duen lurralde bakoitzean.

Jarraipena eta neurketa

Hondakinak kudeatu aurretik, adjudikaziodunak hondakin bakoitzaren kudeaketari datxezkion tratamendu-kontratuak bidaliko dizkio BBUPri, hondakinen tipologiaren arabera.

Sei hilean behin, hondakinen garraio identifikazio-agiriak bidali beharko dizkio adjudikaziodunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari.

Urtean behin, adjudikaziodunak BBUPri jakinaraziko dio zenbat neurketa-ekipo aldatu diren guztira, eta zenbat ekipo kudeatu diren azkenean, bai eta instalazioetan biltegiratuta zenbat geratu diren, erreferentziazko aldia ixteko datan kudeatzeko zain.

Kontratua betetzeko funtsezko betebeharra

Era berean, funtsezko betebeharra da, eta kontratua azkendu egingo da, leialki betetzeko abala egikarituta, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat urruneko irakurketa-sistemaren funtzionamendua ahalbidetzeko betebeharra ez betetzea edo gaizki betetzea, inolako kosturik gabe (administrazio-baldintzen agiri honetan ordaingarritzat ezarritakoaz harago), Baldintza Teknikoen Agirian eta egindako eskaintza osatzen duen dokumentazio teknikoan ezarritako zehaztapen eta betekizunen arabera, eta, bereziki, eskaintza egitean eskatzen diren zinpeko ziurtagiri edo erantzukizunpeko adierazpenek aipatzen duten edukia, edozein arrazoi dela-eta, ez betetzea, H - DOKUMENTAZIO TEKNIKOA atalean zehazten diren moduan.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresak BBUPrekiko solaskidea izendatu beharko du. Hala, informazioa behar bezala transmititu eta zerbitzua emate aldera, solaskideak eguneroko harremana izango du Bezeroekiko Harremanen Sailarekin.

BESTE GOGOETA BATZUK

Kontratuaren xedea betetzeko eta lizitazio-mota ezartzeko kostu zuzenak eta zeharkakoak aztertzeari dagokionez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

Gehieneko lizitazio-tasa kalkulatzeko, aldatu beharreko kontagailu-unitateen kopurua kalkulatu da, bai eta hornidura-lekuan egin behar diren beste lan-agindu batzuen kopurua ere.

Administrazio-baldintzen agiri honek berak jasotzen duen bezala, kontagailuen hornidurari lotutako unitateko prezioak eta egin beharreko lan-aginduak ere gehieneko preziotzat joko dira, eta interesdunek beherantz egin beharko dute beren eskaintza.

Kontratua gauzatzeko, azkenean eskainitako unitate-prezioak aplikatuko zaizkie benetan egikaritutako unitateei (bai hornidura-unitateei, bai lan-aginduei dagozkienei).

Horrela, bai lizitazioaren gehieneko tasa ezartzean, bai kontratua gauzatzean, benetan egindako eta hornitutako kontagailu kopuruaren eta egindako lanen bidez neurtu diren lanak osatuko du kostua. Beraz, benetan egindako lanaren zuzeneko kostuak dira beti.

Interesdunek aleko prezioak definituz egiten duten eskaintzaren osaeran, jakina denez, kontuan hartu beharko dute kostu finko batzuk badaudela, eta, are gehiago, enpresa bakoitzaren inguruabarren arabera, agian zeharkako kostutzat hartu behar diren kostuak ere, baina hori beti egongo da eskaintzeko erabakitzen den prezioari lotuta (gerta liteke zeharkako kostuak preziora jasanarazi nahi ez izatea).